



EKINN CAMPUS

GAZTEENTZAKO EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA ESKOLA

1. AURREKOAK

Donostia Sustapena sozietateak 2023an apustua indartu zuen kudeaketa-estrategia eta -eredu berri baterantz jotzeko, hirian berrikuntzaren arloko erreferentzia bihurtzeko, Donostian Berrikuntza Agentzia lanak egitean oinarrituta.

Donostia Sustapena, ekintzailtzako eta berrikuntzako estrategian, eta talentudun gazteei laguntzeko apustuan, pertsonari, enpresei eta proiektuei lagun egiten aritzen da, pertsonalizaziotik eta kalitatea bermatzeko, eta hori Donostiako zein beste lurralde batzuetako eragile publiko zein pribatuekin elkarlanean egiten saiatzen da.

2023an, Donostia Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailtzaren aldeko apustu estrategikoa indartu zuen, 5 milioi euroko zuzkidurarekin, berrikuntzako ekoizpen-ehunari laguntzeko eta eragin handiagoa izateko, eta hiriaren eta antolakundearen estrategian helburuak duen lehentasunaren adinako aurrekontua erabiliz.

Hortaz, hainbat alorretan egin zen lan: transferentzia teknologikoan, enpresa-proiektu berritzaileen hazkunderan, proiektuen azelerazio aurreratuan eta abarretan.

Talentu gazte ekintzailearen alorrean, 2.000 gazterekin egin zen lan, berrikuntza- eta ekintzailtzajardueretan, lagundu ziren kontratuen % 56 35 urtetik beherakoentzakoak baitziren.

Gainera, ekintzailtzako 8 mintegi antolatu ziren, baita jarduera bereziak ere Lanbide Heziketako ikastetxeekin. Azpimarratu beharreko ekimenen artean daude nazioarteko mugikortasun-bekak, kontrataziorako eta enplegua sortzeko laguntzak (169 lanpostu sortu ziren, % 56 emakumezkoenak), eta Talentuaren III. Azoka egin izana.

2024an, Donostia Sustapenak tokiko gazteen talentuaren alde apustu egiten jarraitzen du, hiriaren etorkizuneko garapenaren motorra baita, gure gazteen artean ekintzailtzaren eta berrikuntzaren

kultura garatuz eta prestkauntzan lagun egiteko ibilbideak eta enpresa-proiektu berriak sortzekoak bultzatuz.

Egoera horretan, Donostia Sustapenak ekintzeiletzarako edo negozio-idea baten hasierako fasea hasteko gogoz dauden gazteentzako murgiltze-programa berri bat jarri du abian.

2. XEDEA

Ekinn Campus ekintzailtza-esperientzia intentsibo gisa planteatu da, ingelesez egingo da eta 5 egunekoa izango da. Herriko eta nazioarteko ekintzaile gazteentzat dago pentsatua, ideia-fasean edo abian jartzekoan dauden proiektu berritzaileak dituztenentzat.

Honako hauek dira programaren helburuak:

- Gazteentzat **berrikuntzaren eta ekintzailtzaaren arloko erreferentzia izatea.**
- **Espazio bat sortzea bertako eta kanpoko beste gazte ekintzaile batzuekin esperientziak partekatzeko.**
- Proiektu berritzaileetarako ideiak dituzten **gazteak gaitzea** enpresa-proiektu bihur ditzaten.
- Ekingo duten gazteentzat abiapuntu izatea, hala **laguntzaren eta prestakuntzaren arloan nola espazio berriak** eskainiz.
- Gure hiria erakustea **kanpoko talentuaren ekintzailtza berritzaileko proiektu berrientzako leku** gisa.

Programa gazteei bideratuta dago, Donostiakoei zein kanpokoei, ekintzailtza berritzaileko ideia bat edo proiektu bat dutenei eta hura garatzen aurrera egin eta aldi berean ekintzaile gisa gaitu nahi dutenei.

3. PARTAIDEEN BETEBEHARRAK

Programa honetan parte hartu ahalko dute honako hauek betetzen dituztenek:

- 18 eta 30 urte dituztenek programa hasteko unean.
- Enpresa-proiektu berritzaile baten ideia dutenei edo abiatzeko fasean dutenei. Halaber, honako gazte hauek ere parte hartu ahalko dute:
 - beren ideia/proiektua aurretik ekintzailtzaiko programa/laguntza batekin ondu dutenek.
 - ekintzailtzaarekin lotutako sariren batean finalista edo irabazle izan direnek.
- Ingeles-maila handia dutenek.
- Programak ezarritako jarduera eta mugarri guztietara bertaratzeko eta haietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dutenek. Programan parte hartzean, beren ideia edo proiektua **era eksklusiboan eta lanaldi osoan** jorratu beharko dute.

Donostian programan parte hartzeko egon beharko dute, eta, hortaz, era eksklusiboan aritu beharko dute programarako ezarritako ordutegian, non eta Donostia Sustapenak ez dien baimenik eman besterik egiteko. Baimenik jaso ez bada Ekinn Campusen ordutegian egiten diren beste programa

batzuetan parte hartzeari utzi ezean, Donostia Sustapenak programa honetako partaidetza eten ahalko du, eta, hortaz, Donostia Sustapenak eskainitako ostaturako eskubidea galduko da, baita programaren gainerako onuretarakoa ere.

4. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Programa ekintzailtza-erperientzia intentsibo gisa planteatu da, ingelesez egingo da eta 5 eguneko izango da. Herriko eta nazioarteko ekintzaile gazteentzat dago pentsatua, ideia-fasean edo abian jartzekoan dauden proiektu berritzaileak dituztenentzat.

Ekinn Campus 2024ko uztailaren 1etik 5era egingo da (astelehenetik ostiralera).

Oro har, Ekinn Campuseko ordutegia 09:00-14:00 / 15:00-18:00 izango da. Aurrez aurre egingo da, Ekinn eraikinean, San Bartolome gaina 16, 20009, Donostia.

Plazak, gehienez ere, 20 izango dira, Sustapenak besterik baimendu ezean.

Programak honako hau hartuko du barnean:

1. Prestakuntza eta gaikuntza, senior mentore eta irakasleen eskutik, ekitean aintzat hartu beharreko gai eta eremu guztiak ezagutzeko, baita negozio baten faseak eta egin beharreko izapideak ere.

Honako gai hauek landuko dira:

- Balio-proposamena: nola egin merkatuko analisia enpresak sortzeko arazoak eta aukerak identifikatzeko eta eragin handiko irtenbideko alternatibak garatzeko.
- Negozio-ereduak: negozio finantzarioko ereduaren inguruan lan egingo dute, eta start-up bat finantzatzen ikasiko. Produktua edo zerbitzua merkatura heltzeko plana egingo dute, bezeroei balio-proposamen berritzailea eginez.
- Enpresa sortzeko prozesua.
- Fundraising: inbertsiogile-mota, proiektua finantzatzeko prozesua, hiztegi finantzarioa eta finantzatuko oinarriko kontzeptuak.
- Gorabideko teknologiak eta tresnak, ezagutza hobetzen lagunduko dutenak: Aak ematen dituen aukerak, datuen analitika eta abar.
- Merkaturatzea eta marketina: ezagutu zure bezeroak. Bezeroak ezagutzearen garrantzia: horiek negozio-ereduaren erdigunean jartzea teknologian oinarrituta haiek asetzeko irtenbidea eskaini ahal izateko.
- Talde-lana: nola egin diziplina anitzeko taldeak.
- Prototipogintza: Prototipo kontzeptual bat sortzea, negozio-eredua bistaratzeko irtenbidea ordezkatzeko duena.
- Storytellinga: Negozio-ideia aurkeztea, nola egituratu eragin handiko pitch bat.

2. **Lagun egite pertsonalizatua** zure ideia-eredua garatzeko eta zure pitch aurkezpena prestatzeko, laguntza profesionalaren bitartez. Azken helburua da zure negozio-idea finkatu eta berritzailea aurkezteko prestatzea.
3. **Ekintzaitza berritzaileko ekosistemekin konektatzea:**
 - Tokiko eta nazioarteko beste ekintzaile gazte batzuen esperientzia.
 - Donostiako eta ekintzaitza berritzaileko punta-puntako beste hiri batzuetako ekosistema: Lisboa, Boston, Madril eta abar.
4. **Demo day:** proiektuaren pitcha epaimahai baten eta gainerako parte-hartzaileen aurrean. Demo day hori programaren azken puntua izango da, Ekinn Campuseko bost proiektu onenentzat.

Gainera, honako hau egin ahalko duzu:

Tokiko eta nazioarteko gazte ekintzaileen EKINN campusaren nazioarteko komunitatearen parte izan. Parte-hartzaileak Ekinn Campus komunitatean sartuko dira, eta mundu osoko ekintzaileekin eta ekintzaitzaren ekosistemako eragile gakoekin konektatuta egongo dira.

Gure EKINN eraikinean ostatu hartu, ostaturako gure laguntza espezifikoaren bidez, ekintzaitza-inguruan guztiz murgiltzeko.

EKINN coworkingean lan-espazioak izan programak iraun bitartean.

Welcome pack (informazio-packa)

Honako hauek dira onuradunen **betebeharrak**:

- Ekinn Campus programan parte hartzeko akordio arautzailea sinatzea.
- Programaziora bertaratzea eta era aktiboan parte hartzea, eta ideia edo proiektu berritzaile bat garatzea programaren ordutegian.
- Programak iraun bitartean Sustapenak antolatutako saio guztietara joatea.
- Ostatu- eta lan-instalazioak ongi erabiltzea, materialei kalte egin gabe eta eraikinaren araudia errespetatuz.
- Campuseko datak betetzea eta bidaiak antolatzea. Donostiara heltzea ekainaren 30a izan daiteke, eta irteera, uztailaren 5a edo 6a.

Aurreko betebeharrak edozein ez betetzeak ahalmena emango dio Donostia Sustapenari parte-hartzailea programatik berehala kanporatzeko eta ez-betetze horrek eragin duen kalte-galera oro erreklamatzeko.

5. PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERAK FORMALIZATZEA

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 20ean amaituko da.

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko izango dira, Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Bitarteko horiek erabili ezin dituenak Donostia Sustapenera jo beharko du, eta azken horrek tramitatzeko modu zehaztu ahalko du.

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatu. Sinadura behar duten aurkeztu beharreko dokumentuak digitalki sinatuta egongo dira.

Edozein informazio edo kontsulta baduzu, deitu 943482800 telefonora, edo idatzi helbide elektronikoa honetara: fomentoss@donostia.eus, gai hau jarrita: "Ekinn Campus"

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailearen NANaren kopia.
- b) Garatu beharreko enpresa-idea edo -proiektua deskribatzeko fitxa, baita programan parte hartzea eskatzeko motibazioa ere.

Onuradunak konpromisoa hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztia egiazkoak izateko, eta horren erantzukizun osoa hartzen du.

Interesdunek aurretik Donostia Sustapenaren 2019aren ondorengo laguntza-deialdiren batean parte hartzeko dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute, ez dute berriz aurkeztu beharko apartatu honetan eskatutako dokumentazioa, indarrean badago eta datuak aldatu ez badira.

6. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA

Behin Donostia Sustapenak dokumentazio guztia berrikusitakoan egiaztatzen bada ez dela bete, edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo falta diren dokumentuak aurkezteko hamar egun baliouduneko epean. Gainera, adieraziko zaio hori egin ezean eskaera prozesutik kanpo utziko dela, inongo bete tramiterik gabe, eta dagokion ebazpena emango dela horretarako. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriaren inguruko azalpenak eskatu ahal izango ditu, egoki iritziz gero.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako helbide gisa emandako helbide elektronikoaren bitartez jakinaraziko dira (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Zuzenketarako eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabilitako bide beretik aurkeztuko da. Ez da onartuko mezu elektronikoz aurkeztutako dokumentaziorik.

Programa honetan parte hartzea onartzea edo ukatzea Donostia Sustapenak berariaz emandako ebazpenen bidez egingo da, eta mezu elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

7. ESKAEREN BALORAZIOA

Aurkeztutako eskaera guztiak honela baloratuko dira:

1. Ideiaren edo proiektuaren berrikuntza-maila, garapen-maila eta ekintzailearen profila, ideiarekin bideragarritasunari eta jarraitutasunari dagokionez, edo negozioa hasi ahal izatea.
2. Programan parte hartzeko motibazioaren balorazioa.

Donostia Sustapena eskatzaileekin harremanetan jarriko da, informazio gehiago behar badu edo pertsona ezagutu behar badu.

Programan partaidetza bakarra eman ahalko da ideia/proiektuko. Salbuespen moduan, ideia edo proiektu bakoitzeko bi lagunek parte hartu ahalko dute.

Eskaera guztiak ekainaren 15a baino lehen ebatziko dira, eta orduan jakinaraziko da nortzuk hautatu eta onartu diren programan parte hartzeko. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez emateak ez dakar laguntza ematea.

Ebazpenak eskatzaileen eskaera-eranskinean "jakinarazpenetarako helbide elektroniko" moduan emandako helbide elektronikora bidalitako mezu elektronikoz jakinaraziko dira, eta web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekin ados egon ezean, alegazioak aurkeztu ahalko dira, gehienez ere ebazpena eman eta hilabeteko epean. Horretarako, harremanetan jarri beharko da Donostia Sustapenarekin, eta emango du izapidetzeko egin beharreko prozeduren berri. Donostia Sustapenak erabakitakoari jarraituko zaio, eta bi alderdiak egongo dira, hala badagokio, Donostiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende.

Aurrekoa eragotzi gabe, Donostia Sustapenak eskubidea izango du eskatzaileari beharrezko iritzitako edozein informazio edo dokumentazio gehigarri eskatzeko, emandako datuen egiazkotasuna edo zehaztasuna egiaztatzeko.

Baldin eta ez badira betetzen dokumentazioa aurkezteko epeak, ulertuko da eskaera bertan behera utzi dela, non eta Donostia Sustapenak ez duen berariaz baimentzen, eta interesdunak behar bezala justifikatuta eskatzen badu aurkezteko epeen ezohiko luzapena.

8. ONURADUNEN BETEBEHAR OROKORRAK

Programaren onuradunek oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, ondore hauetarako berariaz aplikatu beharrekoak, bereziki, hauek (ez dira horietara mugatzen, baina):

- a) Dokumentu honen 2. eta 3. apartatuan adierazitako betekizun guztiak betetzea.
- b) Ekinn eraikinaren araudia betetzea.
- c) Programan parte hartzea onartzeko justifikazio-dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskaritza jarduketetarako, aplikagarria den araudian ezarritako epean.
- d) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzak emateko kontuan hartutako edozein egoera subjektibo edo objektibo aldatu bada, programa honetan parte hartzeko eskaeran.
- e) Donostia Sustapenari eskatutako informazio guztia ematea, programa honetan parte hartzeari buruzko bere funtzioak betetzen dituenean.
- f) Donostia Sustapenak jarraipena egiteko deitutako bilera guztietara bertaratzea.
- g) Donostia Sustapenak programaren inguruan antola ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuak aurkeztea, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
- h) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzea, egin ditzakeen kontrol finantzarioko jarduketetan eta egiaztapenetan, eta haren esku jartzea eskatutako informazio eta dokumentazio guztia.
- i) Programan parte hartu bitartean Donostian bizi ahal izateko legezko dokumentazio pertsonal guztia izatea.
- j) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen eta I+G+b eragileen direktorio digitaletan argitaratzeko onuradunak trafiko ekonomikoan erabilitako harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein zeinu bereizgarri. Horretarako, onuradunak Donostia Sustapenari ustiapen lizentzia emango die, elementu horien ingurukoa, adierazitako helburuetara mugatua, eta bermatuko du hark modu baketsuan erabiltzen duela.
- k) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (lehentasuna euskarari emanez) komunikazio euskarrietan (webgunean, sare sozialetan, mezu elektronikoetan, megafonian eta abarretan), sustapen eta zabalkunde materialen edizioan, antolatutako jardunaldien eta ekitaldien hizkuntzetan eta abarretan.

Onuradunak aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (1.000 karaktere hilean, gehenez ere, eta 9.000 karaktereko itzulpenak), baldin eta zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak betetzen badira.

([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

9. PARTE HARTZEKO AKORDIOA SUNTSIARAZTEA

Programa honetan parte hartzeko suntsiarazpena ekarriko dute, besteak beste, honako hauek:

- Programan ezarritako mugarriak ez betetzea edo saioetan ez parte hartzea.
- Sustapenak antolatutako bileretara, topaketetara eta jardunaldietara ez bertaratzea.
- Programa uztea.

- Ez betetzea ostatu eta lantoki izango den eraikinaren betebeharrak.

Horrelakoetan Donostia Sustapenak programako partaidetza bertan behera utzi ahalko du, eta horrek ez du inolako kalte-ordainetarako edo konpentsazioetarako eskubiderik ekarriko horrelako egoeraren batean dagoen onuradunaren alde.

Horrez gain, eskatzaileraren batek oinarri hauetan jasotako edozein betebeharrak ahalmena emango dio Donostia Sustapenari parte-hartzailea programatik berehala kanporatzeko eta ez-betetze horrek eragin duen kalte-galera oro erreklamatzeko.

10. BATERAKO FINANTZAKETA

Europako Gizarte Funtsak % 40an kofinantzatuko du programa hori, EAEko FSE+ 2021-2027 Programa Operatiboaren esparruan, EKINN HARRERA programarako.

11. DATUEN BABESA

Indarrean dagoen datuak babesteko araudiak ezarritakoari jarraituz, jakinarazten da emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta hura izango da tratamenduaren arduraduna. Informazioa Donostiako Sustapena SA sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragile izango baita.

Tratamenduaren xedea da laguntza-eskaera izapidetzea eta kudeatzea.

Tratamenduaren legezkotasunaren oinarria da DBEOaren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako zeregin baterako. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera inprimakietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da eskatutako datu pertsonalei buruzko informazioa ematea, eta ematen ez bada, edo datu okerrak ematen badira, eskaera ezingo da kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzetako onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo estatuaz gaindiko entitateei laga ahalko zaizkie, hala badagokio, laguntzak kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira haiek kudeatzen, beharrezkoa izanez gero, eta laguntzak ematea kudeatzeko soilik.

Halaber, laguntzak emanez gero, onuradunaren identifikazio datuak eta emandako laguntzaren zenbatekoa komunikatu edo laga egingo dira, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

Ez da aurreikusi hirugarrenei datuak komunikatuko zaizkienik, legez behartuta egon ezean, ezta nazioarteko datu transferentziak egiterik ere.

Tratamendu honen xede direnen datu pertsonalak gorde egingo dituzte alderdiek, jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko beharrezko aldi guztian. Aplikagarria izango da artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa.

Ukitutako pertsonak datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta datuak babesteko araudiak jasotako beste eskubideak erabili ahal izango dituzte, bidezkoa bada, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, helbide honetan: Easo kalea 41, 20006, Donostia.

Beren eskubideak erabiltzean ez bazaie arreta behar bezala eman, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008, Gasteiz. Nolanahi ere, aurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango da Donostiako Datuen Babeserako ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

12. FORUA ETA AUZIEN EBAZPENA

Edozein eztabaida, arazo edo desadostasun egonez gero, gatazkak ebazteko bide estrajudiziala agortutakoan eta dagozkion errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztu ondoren, bi alderdiak Donostiako epaitegiek eta auzitegiek ezarritakoaren mende egongo dira.

Donostian, 2024ko Maiatzaren 15an

Iñigo Olaizola

Donostia Sustapena SA sozietatearen zuzendari kudeatzailea

